Ebazpena, Nekazaritza eta Abeltzantzako zuzendariarena, zeinaren bidez aldez aurreko kontsulta egiten baita xedapen orokor bat egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Konpainiako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) konpainia-animalia laguntzaileak erregistratzeko.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egokitzat jotzen du xedapen orokor bat egitea Euskal Autonomia Erkidegoko Konpainiako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) konpainia-animalia laguntzaileak erregistratzeko eman beharreko urratsak eta horretarako beharko den dokumentazioa ezartzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 11. artikuluak xedatzen duenez, xedapen orokor bat idatzi aurretik herritarren iritzia eskatuko da, kontsulta publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taularen bidez.

Ebazpen honen bidez, ekainaren 30eko 6/2022 Legean aurreikusitako aldez aurreko kontsultaren izapidea betetzen da, etorkizuneko arauak eragingo dien herritarrek beren iritzia emateko aukera izan dezaten.

Horregatik guztiagatik, HERRITARRAK ESPRESUKI GONBIDATZEN DIRA, IRITZIA EMAN DEZATEN idaztekoa dugun etorkizuneko xedapen orokorrari buruz ebazpen honetan ematen den informazioari buruz.

Etorkizuneko arauari buruzko informazioa eranskinean dago, eta honako alderdi hauek jasotzen ditu:

Resolución de la directora de Agricultura y Ganadería, por la que se somete a consulta previa la elaboración de una disposición de carácter general para el Registro en el Registro General de Identificación de Animales de Compañía de la Comunidad Autónoma del País Vasco (REGIA) de los Animales de compañía auxiliares.

El Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente considera oportuna la elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de establecer los pasos que deben darse para registrar estos animales en REGIA y la documentación que se requerirá para ello.

El artículo 11, de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que, con carácter previo a la redacción de una disposición de carácter general, se recabará en consulta pública, la opinión en la sociedad de la ciudadanía, a través del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Mediante la presente resolución, se da cumplimiento al citado trámite de consulta previa previsto en la Ley 6/2022, de 30 de junio, a los efectos de que, la ciudadanía afectada por la futura norma, tenga la posibilidad de emitir su opinión.

Por todo ello, se INVITA EXPRESAMENTE A LA CIUDADANÍA A PRONUNCIARSE acerca de la información que se contiene en la presente resolución sobre la futura disposición de carácter general cuya elaboración se va a iniciar.

La información sobre la futura norma se contiene en el Anexo y versa sobre los siguientes aspectos:

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T8Z8F-XND7
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: ONEKA ZABALLA GONZALEZ | 2026/11/24 10:17:04

a) Araua onestea beharrezko eta egoki den.
b) Arauaren helburuak.
c) Arauaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
d) Ea beste konponbiderik badagoen arauketa erabiliz edo beste nolabait.

a) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
b) Los objetivos de la norma.
c) Los problemas que se pretenden solucionar.
d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Herritarrek egoki iritzitako iradokizunak edo oharrak aurkez ditzaten, **15 egun balioduneko** epea ematen da, ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taulan sartu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Se establece un plazo de **15 días hábiles**, a contar desde el día siguiente al de la inclusión en el tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi de la presente resolución, para que la ciudadanía presente todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Kontsulta-izapide hau arau-proiektua idatzi baino lehenago egiten dugu, Xedapen orokorrak egiteko prozeduraren abenduaren 30eko 6/2022 Legeak arautua daukan “prestaketa” fasearen (11. artikulua) barruan.

El presente trámite de consulta se efectúa, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo, dentro de la fase de “Preparación” de una disposición de carácter general, prevista en la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General (artículo 11).

Abenduaren 11ko 438/2024 Dekretuak (Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen du) ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 438/2024, de 11 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Alimentación, Desarrollo Rural, Agricultura y Pesca

EBAZTEN DUT:

RESUELVO

Lehenengoa.- Herritarrei aldez aurreko kontsulta egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Konpainiako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) konpainia-animalia laguntzaileak erregistratzeko xedapen orokorraren proiektuaren inguruan, hori landu aurretik.

Primero. - Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general para el Registro en el Registro General de Identificación de Animales de Compañía de la Comunidad Autónoma del País Vasco (REGIA) de los Animales de compañía auxiliares.

Bigarrena.- Herritarrek, egoki irizten badiote, ebazpen honen eranskinean azaldutako alderdiei buruzko iritzia eman ahalko dute hamabost egun balioduneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan, Irekian zein Legegunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Segundo.- La ciudadanía, que así lo considere, puede hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta resolución en el plazo de quince días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el del tablón de anuncios de la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en Irekia y en Legegunea.

Vitoria-Gasteizen

En Vitoria-Gasteiz

Oneka Zaballa González
Nekazaritza eta Abeltzantzako zuzendaria
Directora de Agricultura y Ganadería

ERANSKINA

Onartzeko beharra eta egokitasuna

Dekretua onartzeak Etxeko Animaliak Babesteko ekainaren 30eko 9/2022 Legearen aurreikuspenak garatzeko beharrari erantzuten dio, konpainia-animalia laguntzaileen akreditazioari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Konpainiako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorraren (AIEO) atal bereizi batean inskribatzeari dagokienez. Dekretu hori onartzeak aukera emango du animalia horiek zer jardueratarako erabiltzen diren egiaztatzeko baldintzak zehazteko eta animalia horiek aitortzeko eta inskribatzeko esparru komun bat ezartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko araudia harmonizatuz.

Era berean, araua onestea egokia da AIEOn dagoeneko inskribatuta dauden animalien egiaztapena antolatzeko. Horretarako, araubide iragankor bat aurreikusten da, animalia bakoitza dagokion kategorian sailkatuta egotea justifikatzeko.

Arauaren helburuak

Arauaren helburuak dira laguntzako konpainia-animalien definizioa eta sailkapena zehaztea, betetzen duten jardueraren arabera haien izaera egiaztatzeko betekizunak eta dokumentazioa ezartzea, eta AIEOren berariazko atalean inskribatzeko modua arautzea. Halaber, inskripzio hori identifikatzeko eta erregistratzeko prozedura orokorrarekin uztartu nahi da, eta dagoeneko inskribatuta dauden animaliak egiaztapen-betekizun berrietara egokitzeko araubidea ezarri.

ANEXO

La necesidad y oportunidad de su aprobación

La aprobación del decreto responde a la necesidad de desarrollar las previsiones de la Ley 9/2022, de 30 de junio, de protección de los animales domésticos, relativas a la acreditación de los animales de compañía auxiliares y a su inscripción en una sección diferenciada del Registro General de Identificación de Animales de Compañía del País Vasco (REGIA). Su aprobación permitirá concretar los requisitos para acreditar la actividad a la que se destinan estos animales y establecer un marco común para su reconocimiento e inscripción, armonizando la regulación aplicable en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La oportunidad de la norma se vincula también a la necesidad de ordenar la acreditación de los animales que ya figuran inscritos en el REGIA, mediante un régimen transitorio que permita justificar su clasificación en la categoría correspondiente.

Los objetivos de la norma

La norma tiene por objeto concretar la definición y clasificación de los animales de compañía auxiliares, establecer los requisitos y la documentación necesarios para acreditar su condición según la actividad que desempeñan y regular su inscripción en la sección específica del REGIA. Asimismo, pretende articular esa inscripción con el procedimiento general de identificación y registro y establecer la adaptación de los animales ya inscritos a los requisitos de acreditación previstos.

Arauaren bitartez konpondu nahi diren arazoak

Ekimenak laguntzako konpainia-animalien izaera nola egiaztatu behar den eta kategoria bakoitzerako zer dokumentazio aurkeztu behar den erregelamendu bidez zehazteko beharrari erantzun nahi dio, AIEOko atal bereizian inskribatzeko aukera gauzatzeko. Era berean, jarduera bakoitzari aplikatzekoak zaizkion aurreikuspenak harmonizatu eta identifikatzeko, egiaztatzeko eta inskribatzeko betekizunak antolatu nahi ditu.

Halaber, laguntzako animalia gisa erregistratuta egon arren justifikazio-dokumentazio nahikorik ez duten animalien egoerari erantzun nahi zaio. Horretarako, haien sailkapena egiaztatzeko egokitzapen-araubide bat aurreikusten da, bitartean indarrean dagoen inskripzioari eutsiz.

Los problemas que se pretenden solucionar

La iniciativa pretende dar respuesta a la necesidad de concretar reglamentariamente cómo se acredita la condición de animal de compañía auxiliar y qué documentación debe aportarse para cada categoría, haciendo operativa su inscripción diferenciada en el REGIA. También busca armonizar las previsiones aplicables a las distintas actividades y ordenar los requisitos de identificación, acreditación e inscripción.

Asimismo, se pretende abordar la situación de los animales que ya constan registrados como auxiliares sin documentación justificativa suficiente, mediante un régimen de adaptación que permita acreditar su clasificación y mantener entretanto su inscripción.

Bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Ez dago beste aukerarik, ez erregulatzaileak ezta ez-erregulatzaileak ere.

Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

No hay otras alternativas, ni regulatorias ni no regulatorias.